

- **Begiradaren heziketa**

GARAIALDE, Alicia; AUZMENDI Joxe Mari eta besteak

Euskarria DVD + Liburua**Orrialdeak** 1h 17' + 1h 05' . 43 orr.**Prezioa** 30**Urtea**

2005

Lehen hezkuntzako azken zikloko eta DBHko lehen zikloko haurrentzat, eta pelikulak egiteko prozesuaz interesatuta dagoen edonorentzat.

- **Ilargiaren sekretu**

Zuzendaria: Alicia Garaialde; Gidoia: Maialen Lujanbio; Musika: Xabier Zabala; Aktoreak: Pirritx eta Porrotx pailazoak, Ohiane Amundarain, Oihane Aranbarri, Ane Cañada, Israel Calvo, Ane Gomez eta Sidi Mohamed haurrak; Ramon Agirre, Niko Lizeaga, Mertxe Rodriguez.

Euskarria DVD**Iraupena** 77 min.**Urtea** 2004**Prezioa** 20


Basamortuan bizi den Sidi sahararra arreba sendatuko duen gaueko lore baten bila abiatu da, ibilbide horretan Euskal Herrira iritsiz. Hala ere, ez du lorerik aurkitu Madame Banuk eta bere bi laguntzaile baldarrek munduko lore guztiak bereganatu dituztelako. Hiru maltzur horiek ongi ezagutzen dute lorearen boterea eta ilargiak gordetzen duen sekretua. Pirritxek, Porrotxek eta haurrek beren adiskide berriari lore bat lortzen lagunduko diote eta ilargiraino bidaiatu beharko dute horretarako.

- Jolasen altxorra

Familia osoak ikustekoa. Baita ikastetxeetan ere.

Gidoia: PAILAZO taldea. Musika: ZABALA, Xabier. Aktoreak:
Zurriola eta Langile ikastolako haurrak.

Euskarria	DVD
Iraupena	60m.
Urtea	2002
Prezioa	18



Altxorraren mapa hartu eta euskal pirata txikiak Pirritxekin eta Porrotxekin altxorraren bila abiatuko dira itsasoetan barna. Barrabas pirata petralak hamaika oztopo ipiniko dizkie bidean. Ez dira, ordea, bakarrik ibiliko, Joxepi itsas-neska bere zinginarriarekin, eta baita euskaldun ezagun-ezagunen laguntza izango dute. Ahaleginak saria izango du altxorraren kutxa aurkitzen dute eta. Zer ote dago barruan?

Lan honetan Haur-Jolasen abestiak II eta III musika-zinta eta CDetako 20 joko nola jolasten diren ikus daiteke.

- Zatoz jolastera

Familia osoak ikustekoa. Baita ikastetxeetan ere.

Gidoia: PAILAZO taldea. Musika: ZABALA, Xabier.
Aktoreak: Zurriola eta Langile ikastolako haurrak.

Euskarria	DVD
Iraupena	55m.
Urtea	2001
Prezioa	18

Serapio kaskagorrek baloia kendu die plazan jolasean zebiltzan haurrei. Laster ahaztuko zaizkie penak! Pirritx eta Porrotxekin amona Josefinaren baserrira egun pasa joateko plana egingo baitute. Abenturaz beteriko egunean jolasean arituko dira Euskal Herriko lagun oso-oso ezagunekin... Serapio beti zelatan izango dute.

Lan honetan Haur-Jolasen abestiak I eta II musika-zinta eta CDetako 22 joko nola jolasten diren ikus daiteke.

